



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	SESTAOKO ANGELA FIGUERA B.H.I.					Kodea 014440	2015-2016
GAIA	PLASTIKA ETA IKUS EZKUNTZA					DATA	2015-10-30
MAILA	DBH 1	DBH 2	DBH 3	X	DBH4		
1	HELBURUAK					EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
<p>- GIZA GORPUTZA -Proporzioeetaz jabetza</p> <p>-KONPOSAKETA ETA OREKA Arte-hizkuntzen teknika, baliabide eta arau nagusien oinarritzko ezagutza eta jakintza izatea.</p> <p>-DISEINUA Diseinuarekin, ikusizko euskarria duten informazio- eta komunikazio-bitartekoekin eta objektuak eta formak teknikoki irudikatzen sistemekin lotura duten gure kulturako ekoizpen artistiko-estetikoko eremuak ezagutzea eta haien berariazko kodeetara hurbiltzea, kritikoki balioesteko, eta adierazteko eta komunikatzeko baliabide gisa erabiltzeko.</p> <p>-KARTELA Plastikaren hizkuntzak eta ikusizkoen hizkuntzak beste hizkuntza batzuekin eta ezagutzaren beste eremuekin dituzten harremanak ulertzea, integratzea eta arte-ekoizpen konplexuak pentsatzeko eta garatzeko erabiltzea.Oraingo kezka sozialei buruzko gogoetak egiteko aukera ematen du: kultura-nortasuna, desberdintasuna, generoa, indarkeria, immigrazioa..Aurtengo gaiak ingurumenarekin Sotuta eta emakumearen baloreak izango dira. Klasearen lan giroa,elkarbizitza eta tolerantzia landu,kultura ezberdinak eta genero berdintasuna errespetatzeko</p> <p>-MARRAZKETA GEOMETRIKOA</p>						<p>Ea behar den materiala ekartzen duen. Ea gela barruan lanean jarduten den.</p> <p>Ea arte lanean etapak logikoki antolatzen eta garatzen dituen.</p> <p>Ea bere akatsak onartzen dituen , eta hobekuntza-tresnatzat hartzen dituen</p> <p>Ea originaltasunez eta irudimenez adierazten den eta lan batetik bestera hobetzen saiatzen den.</p> <p>Ea ekimenik ageri duen materialak eta teknikak erabiltzen</p> <p>Ea ekarpen pertsonalik egiten duen zenbait adierazpen prozesuetan Ea gelako materiala garbitu eta zaintzen duen.</p> <p>Ea laminak epe bukaera baten barruan entregatzen dituen.</p> <p>1.EBALUAZIOA Proporzioak mantentzen ditu. Konposaketa estetikoa bere lan guztietan agertzen da. Hirukia konposaketaren oinarri bezala erabiltzen du.</p> <p>2.EBALUAZIOA Kartelaren funtzioak ulertzen ditu.</p> <p>3.EBALUAZIOA Inskribaturiko poligonoak eraikitzen ditu. Metodo orokorra erabiliz. Eta metodo berezia erabiliz :hirukia, karratua, pentagonoa. Poliedro errezen bolumena etaratzten daki eta planoan bereizten ditu</p>	



.POLIGONOEN ERAIKUNTZA (ZZ ERRADIOA
EZAGUTURIK) ETA AZALERA Mota
guztietako objektuak diseinatzeko
kontzeptuak eta baliabide geometrikoak
erabiltzeak, neurriak, proportzioak eta
posizioak erabiltzeak formen arteko
harremanak ulertzeko
-BOLUMENA :PLANOAN ETA
MATEMATIKOKI. Prisma eta piramideen
bolumenen formula ezagutzea eta
grafikoki bereiztea



2	EDUKINEN DENBORALIZAZIOA		
	1. EBALUAZIOA	2. EBALUAZIOA	3. EBALUAZIOA
	<p>1..Arte-hizkuntzen baliabideak eta arauak</p> <p>GIZA GORPUTZA: Aurpegia KONPOSAKETA ETA OREKA Irudiak antolatze baliabideak: konposizioa eta oinarritzko elementuen arteko erlazioak (erritmoa, mugimendua, proportzioa, eskalak...).</p>	<p>2. eduki multzoa. Sorkuntza- prozesuak, - teknikak eta -eremuak.</p> <p>DISEINUA Lan-eremuak eta arteen aplikazio-eremuak: diseinua, ikus-entzunezko komunikabideak (telebistaproduktuak, animazioa...), arte grafikoak, dekorazioa, moda...</p> <p>KARTELA Programa digitalak erabiliz ingurumenarekin lotuta doan kartela. Emakumea gaiari buruz beste kartel bat.</p>	<p>3. eduki multzoa. Arteko eta ikusizkoen kulturako erreferente estetikoaren ulermena eta interpretazioa</p> <p>MARRAZKETA GEOMETRIKOA: Poligono inskribatuak Izar poligonoak BOLUMENA: - Hiru dimentsiotan sortzeko oinarritzko teknikak. - Bolumen positiboa eta negatiboa Argia eta bolumena Argien eta itzalen proiektzioa Bolumen solidoa eta hutsa Bolumen solidoaren eta hutsaren efektuak Poliedro errezen bolumenak(matemátika)</p>

3	IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA
<p>Liburu desberdinetan proposaturiko ariketen bidez beraien trebetasunak bultzatuz beti ere ikasleen proposamen artistiko desberdinak onartzeko jarrera irekia izanez.</p> <p>Metodología aktiboa eta partehartzailea: ikaslea bera bere ikaste-prozesuaren protagonista izan behar da, bakarkako zein elkarlaneko lanetan, eta irakaslea bere laguntzaile eta gidari. Metodologiak ikaskuntza esanguratsua bultzatu behar du ikaslearen aurrezagutzak azalaraziz, esahutzak berreraikitzen eta, ondorioz, era adierazgarrian ikastea bermatzen. Horrela, ikasleak aurrezagutzatik abiatuta, informazio berria eskuratuko du (dakienarekin lotuta). Edukiak era esanguratsuan eta funtzionalean planteatuko dira, beti ere, ikasleen garapen mailara egokituta. Motibatzailea izan behar da, hau da, egoera ludikoan ikasleen motibazioa pizten duten jarduerak proposatzen dituen.</p> <p>Ikasketa aktiboa bultzatuko da informazioa biltzeko, aztertzeko, egiten ikasteko, errespetua edo talde laneko mekanismoak garatzeko, Azkenik auto-estimua: lana ondo egiten ari direlako sententzia bultzatuz, ikaslearen auto-estimua bermatuko da.</p>	



IKTen erabilera garrantzi handia izango du, komunikazio –eta informazio- gune berriak ezartzeko.

Akatsaren tratamenduak berebiziko garrantzia izango du euren lanetan.

Taldekatzeko moduak: hainbat taldekatze motatan lan egingo da, egoeraren arabera:

Talde handiko, txikiko eta banakako lana (lan pertsonala ikaskuntzaren oinarria izanik, taldeko lanak ere oso beharrezkoak dira). Talde heterogeneoak sortzea ezinbestekoa da, bai sexu bai trebetasun aldetik. Lan hauetan etorkizunean lanerako oso beharrezkoak izango dituen alderdiak garatzen ditu ikasleak, besteen ideiak baloratuz eta errespetatuz, eta besteengandik ikasiz.

Klarearen lan giroa, elkarbizitza eta toleranzia landu, kultura ezberdiak eta genero berdintasuna errespetatzeko.

3.1

ANIZTASUNA

Aniztasuna egungo ezaugarria dugu. Ikasle guztiak ikasteko prozesuaren aurrean anitzak dira, jarrera, interes, motibazio, ahalmen, ikasteko modu eta aurretiko esperientzia eta batzuetan kultura ezberdinak ere baitituzte. Proposatu diren ariketak hainbat gaitasun mailatatik normalean ikasle guztiak egiten ahal dituzte eta ariketa zaluak izanez ikasle bakoitzak bere berezkotasunarekin egin ditzan pentsatuta daude. Beraz, ikaslearen sormena eta autonomia bultzatuko dira.

Aniztasuna tratatzeko neurriek unean uneko premiei erantzun beharko diete, ikasleen motibazio eta ahalmena ahintzat hartuta, ingurune inklusiboan ikasteko.

4

BALIABIDEAK

TESTU LIBURUA: : Ikusmira saila 3 , **ARGITALETXEA** : Zubia Santillana

Ikasleen koadernoak, eskuaira, kartaboia, erregela, konpasa, adaptadorea, argizariak, tenperak, pintzelak, errotulkiak, zenbakidun errotulkiak eta bestelako materialak.

Urbileko errealitatea behatzeko aukera ematen dutenak: hedabideak, prensa, interneta, sare sozialak,..

Power pointen bidez eginiko aurkezpenak.

5

EBALUAZIOA: EBALUAZIO-TRESNAK ETA KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK



Portaera %10
Lanak %90

Azterketak izatekotan:

Portaera %10

Lanak %50

Azterketa %40

Eskatutako lan guztiak fijatutako epean entregatu beharko dira eta alde zuzenetik fijatu diren puntu guztiak bete beharko dituzte.

6

BERRESKURATZEA. BERRESKURAPENERAKO JARDUERAK

Ikasleek ebaluazioa amaitu amaiyu ondoren gaintu gabeko jarduera praktikoak berreskuratzeko aukera izango dute. Horretarako, gaintu gabe dituzten azterketak edo eta lan praktiko berberak edo antzekoak egingo dituzte.